



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO ABENDUAREN 2AN
GOIZEKO 8:45EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2022/11/08KO BILKURA.

Batzarkideek 2022ko azaroaren 8ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USURBILGO ALTAKO UR HORNIDURA INSTALAZIOAREN HOBEKUNTZA LANAK
GAUZATZEKO OBRAREN LIZITAZIOAN ESKAINTZA ONENAREN IZENDAPENA
(ID.05/2022-0144).**

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 27ko erabakiaren bidez Usurbilgo altako ur hornidura instalazioaren hobekuntza lanak gauzatzeko obra kontratatzeke espedienteari onespena eman zitzaion, prozedura ireki arruntaren bidez, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta epe barruan lizitatzailerak bakarrik aurkeztu da: Construcciones Zubieder S.L.

2022ko azaroaren 11ko Kontratazio Mahaiak A artxibo elektronikoa ireki eta honen edukia ontzat eman ondoren, B artxibo elektronikoa ireki eta edukia saileko teknikariari eman zitzaion azterketa eta balorapena egin zezan.

Zerbitzu saileko teknikariak txostena osatu du eta horren arabera aurkezturiko agiriak pleguetako baldintzak betetzen ditu. 2022ko azaroaren 18ko Kontratazio Mahaia bildurik, C artxibo elektronikoa ireki da eta lizitatzaileraren eskaintza honakoa izan da:

- Prezioa: 720.000 euro (%21eko BEZ barne 871.200 euro)
- Bermea: guztira 3 urte

Hortaz, 2022ko azaroaren 18ko Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENA: Construcciones Zubieder S.L.-k eginiko eskaintza izendatzea eskaintza bakar eta hortaz eskaintza ekonomiko onena.

BIGARRENA: Construcciones Zubieder S.L.-ri erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetako 9. klausulan zehazten diren agiriak eta dagokion behin-betiko bermea (36.000 euro) aurkeztu ditzan.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Construcciones Zubieder S.L.-ri, Zerbitzu sailari eta Kontu-hartzailetza sailari ematea.

3.- JOAQUINA AZKONOBETA ESNAL EKINIKO LANTZARREKO 1. POLIGONOKO 34. PARTZELAN (GOROSTIDI BASERRIKO LURRETAN) ERAIKITAKO HARAGITARAKO BEHI-AZIENDARENTZAKO UKUILUAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (HZ.04/2020-0329).

JOAQUINA AZKONOBETA ESNAL andereak, Aginagan, Gorostidi baserriko lurretan, landaluerreko 1. poligonoko 34. partzelan eraikitako haragitarako behi-aziendarentzako ukuiluaren lehen erabilera udal baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko ekainaren 8an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: JOAQUINA AZKONOBETA ESNAL andereari, Aginagan, Gorostidi baserriko lurretan, landaluerreko 1. poligonoko 34. partzelan haragitarako behi-aziendarentzako ukuilua eraikitzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	50.916,26 €
Obra amaierako kitapena:	51.697,89 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 516,88 €
	Fidantza (%120): 620,26 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraikitako haragitarako behi-aziendarentzako ukuiluaren lehen erabilera baimena eskatu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, aurkeztutako



Usurbilgo Udala

dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2022ko urriaren 31ean, aldeko txostena eman du.

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JOAQUINA AZKONBIETA ESNAL andereak, Aginagan, Gorostidi baserriko lurretan, landaluerreko 1. poligonoko 34. partzelan eraikitako haragitarako behi-aziendarentzako ukuiluaren lehen erabilera ematea, ondorengo baldintzapean:

- Ukuiluari Ondasun Higiezinaren gaineko Zergen alta eman beharko zaio U-4 inprimakiaren bitartez.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko ekainaren 23an ezarritako 620,26 €-tako fidantza (IE 53-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 2095 5069 01 1061374178.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, ordaindu beharreko udal zergen behin betiko kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabaki hau interesatuari, Errenta eta Ondare Teknikaria eta diruazainari ematea.

4.- KIROL ELKARTEEN OHIKO EGITASMOAK BURUTZEKO 2022KO DIRULAGUNTZEN BIGARREN ZATIA (2022KDKE0001).

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17ko datan, norgehiagoka erregimeneko 2022. urterako dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko matxoaren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira bederatzi eskaera jaso ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21eko datan, dirulaguntza kopuruak onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketa ere.

Orain, eskatzaileek dirulaguntzaren zuriketa aurkeztu dute.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-



Usurbilgo Udala

- 22).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2022-03-08).
- 2022-11-21eko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzan bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	2. zatia
Tximeleta Kirol Elkartea	1.204,46
Usurbil Kirol Elkartea	6.584,55
Usurbil Herriarentzat Futbol Kirol Elkartea	8.586,68

Bigarrena: Bigarren zatiaren ordainketak partida honen kargura joango dira:

1 4300.481.341.00.01 Kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzenak

Hirugarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

Laugarrena: Interesatuei erabakia jakinaraztea.

5.- KIROL ELKARTEENAK EZ DIREN KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO 2022KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2022KDEE0001).

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17ko datan, norgehiagoka erregimeneko 2022. urterako dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko matxoarenren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira bost eskaera jaso ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21eko datan, dirulaguntza kopuruak onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketa ere.

Orain, eskatzaileek dirulaguntzaren zuriketa aurkeztu dute.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).



Usurbilgo Udala

- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2022-03-08).
- 2022-11-21eko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Kirol elkartenak ez diren kirol jarduerak burutzeko dirulaguntza itzulketa hauek onartzea:

Eskatzailea	Itzuli beharrekoa
Einean Guraso Eskola	5,60 €

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832

EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Bigarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

Hirugarrena: Interesatuei erabakia jakinaraztea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:00ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.